

9. MOLIBA MAKAZI EDO NOLA GAINDITU ZAILTASUNAK ELKARREKIN ARRAUN EGINDA, GARAIAK ZAILAK IZAN ARREN (23 ARGAZKIA)

Begiratu 23. Argazkia: zer ikusten duzu bertan? Non daude ume horiek? Eta nola daude? Zer egiten ari direla uste duzu? Argazkiko testuak honakoa dio: “pilota bat, familia bat eta gatazka ia ahaztuta”... posible dela uste duzu?

Ikusiz joan garen bortizkeria ziklo honen gainetik herrialde bat dago eta, batez ere, beren lurraldearen garapena eraikitzeko gaitasuna duten herritarrak daude; gai dira begirada jaso eta beste Kongo bat posible dela amets egiteko, eta egunero hori lortzeko lan egiteko.



Kongoko Errepublika Demokratikoa hedaduraz Afrikako bigarren herrialderik handiena da, Argelia eta gero, eta paisaia-mota asko ditu, hegoaldeko sabanatik hasi eta mendien eskualderaino, Afrikako laku handietatik igaroz. Kongon hainbat parke nazional daude, eta horietako 5 Gizateriaren Ondare izendatu ditu Unescok. Tamalez gaur egun, gerra dela eta, Unescok arriskuko gune gisa sailkatu ditu. Nolanahi ere, aniztasun hori ez da ingurumen-kontuetara mugatzen; kultura aniztasuna nabarmena baita: 250 talde etniko inguru daude eta 242 hizkuntz hitz egiten direla uste da.

Gure egiten ditugu Kongoko Uele ibaiko arrantzaleen abestiaren hitzak: “bidea zaila izan arren, korrontea handia izan arren, elkarrekin egiten badugu arraun, gure helburua lortuko dugu”.

- **Bideoak:**

- o “Moliba Makasi Abestia” (Iturria: Didier Jeunesse - Des comptines et des chansons) [Ikusi.](#)
- o “Happy we are from Goma” (Iturria: Kelvin Batumike) [Ikusi.](#)

9. MOLIBA MAKAZI EDO NOLA GAINDITU ZAILTASUNAK ELKARREKIN ARRAUN EGINDA, GARAIAK ZAILAK IZAN ARREN (23 ARGAZKIA)

- **Infografia:** “Moliba Makazi” (Iturria: ALBOAN) [Ikusi.](#)
- “I am Congo Video Series”(ingelesez) (Iturria: Enough Project) [Ikusi.](#)



ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa

-en proiektu bat



TECNOLOGÍA
LIBRE DE
CONFLICTO

www.tecnologialibredeconflicto.org

Lortzeagatik

Laguntzailea:



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN